

GAZTE LANGABEAK EUSKAL ENPRESETAN KONTRATATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA. LEHEN AUKERA 2022.

HELBURUA: Titulua edo prestakuntza izanik ere beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak euskal enpresek edo bestelako erakundeek kontratatzeke oinarriak ezartzea eta horretara bideratutako laguntzak arautzea, haien enplegarritasuna hobetzeko neurri gisa, lan esperientzia lortzearen eta haien laneratzea sendotzearen bidez.

ONURADUNAK:

Enpresa pribatuak (edozein dela ere haien forma juridikokoa), banako enpresaburuak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak, elkarteak eta fundazioak.

BALDINTZAK:

Laguntza jaso ahal izateko baldintza hauek ditu:

1. Helbide soziala eta fiskala EAEn izatea edo lantokia EAEn egotea.
2. Herri-administrazio batek edo gehiagok enpresa horretan % 50etik gorako partaidetza ez izatea, ez zuzenean ez zeharka.
3. Enpresaren langileen legezko ordezkariak jakinarazi izana deialdi honen babesean kontratatzeke asmoa dagoela. Enpresak berariaz adierazi beharko du eskabidean langileen legezko ordezkariarik duen ala ez.
4. Aldez aurretik Europar Batasuneko Batzordeak hartutako erabaki baten ostean ez egotea errekuperatzeko agindu bati lotuta, zeinak laguntza bat merkatu erkidearekin bateraezina edo legez kanpkoa dela baitu.

LAGUNTZAREN ZENBATEKOA:

Praktikaldiko edo mugagabeko kontratua, titulu akademikoaren arabera	Praktikaldiko kontratua		Kontratu mugagabea	Praktikaldiko kontratua		Kontratu mugagabea
	Diru-laguntza 6 hilabeterako	Diru-laguntza 12 hilabeterako		Diru-laguntza 6 hilabeterako (Emakumea)	Diru-laguntza 12 hilabeterako (Emakumea)	
Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo Masterra-Boloniako Plana, Unibertsitateko diplomatura, Ingeniaritza teknikoa, Arkitektura teknikoa edo Unibertsitateko Gradua- Boloniako Plana	5.300,00 €	8.480,00 €	12.700,00 €	5.830,00 €	9.328,00 €	13.970,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	4.550,00,00 €	7.280,00 €	10.900,00 €	5.005,00 €	8.008,00 €	11.990,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), Oinarizko lanbide heziketa eta Profesionaltasun Ziurtagiria	3.500,00 €	5.600,00 €	8.400,00 €	3.850,00 €	6.160,00 €	9.240,00 €

— Diru-laguntzen zenbateko hauek lanaldi osoko kontratuei dagozkie, lanaldi partzialekoetarako lanaldiaren proportzioan daituko dira.

Erakunde kolaboratzaileak

Eskaintza biltzea eta erregistratzea: 120 € :
 Eskaintza kudeatzea: 80 €
 Trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena: 120 €

Zenbatekoak %10 handituko dira formalizatutako eta diruz lagundutako 20 kontratuko, enplegu-eskaintzak hartu, erregistratu eta/edo kudeatuko baditu.

AURKEZPEN EPEA

Eskabideak aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 1ean hasiko da eta 20221eko urriaren 31n bukatuko.